

*Poesia*

**RAFA UGALDE**  
*Hondar aleak*

**BLAS DE OTERO - BILBO URIA**  
NAZIOARTEKO X. POESIA LEHIAKETA



erein

# HONDAR ALEAK

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

---

BILBOKO UDALAK ETA BLAS DE OTERO FUNDAZIOAK ANTOLATZEN DUTEN BLAS DE OTERO - BILBO URIA  
X. POESIA SARIA IRABAZI DU LIBURU HONEK.

*1. argitalpena: 2018ko maiatzean*

Azalaren diseinua:

Iturri

Azaleko irudia:

Ivan Landa

Maketazioa:

Erein

© Rafa Ugalde

© EREIN. Donostia 2018

ISBN: 978-84-9109-317-6

L. G.: SS-435/2018

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: [erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)   

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [edizioak@itxaropena.net](mailto:edizioak@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

Rafa Ugalde

# HONDAR ALEAK



## MAKALA

Makala nagusi da ibai bazterreko landaredian  
zut, tente  
lantokiko leiho koadrikulatuan ardatz,  
begirale ageri da  
gizakion isilpekoen entzule.

Gaur ere begira egon natzaizu, bion arteko urte isilen zama  
bizkarrean,  
ukitu gura zintuzket,  
gu bion arteko muga guztien gainetik,  
arnasa hartu zure azaleko zimurretatik.

Zelatari zaitut arrastiko haizearekin dantzan,  
ahotsik gabeko begi.  
Hurreratuko nintzaizuke  
zure azal arrailduaren tximurren epeltasuna sentitzeko  
atzamarrak zurrin ditut zu ukitzeko ahaleginean  
beharbada, zure berbaren samurtasun urriak leituta.  
Baina ukituzko harremanik gabe ere,  
berbazko erantzunik gabe ere,  
zeuk ezagutzen nauzu ondoen,  
eta seguruenik, aspaldian asmatu duzu  
ni ez naizela hemengoa.

## NI EZ NAIZ HEMENGOA

Ni ez naiz hemengoa,  
azalaren eta indarraren lurraldekoa naiz ni,  
non bortizkeria defentsa eta biziraupena den,  
non nagia zilegi den,  
non jana, edana eta jantzia konpultsibo barik  
beharrizanak diren,  
non iaioetasuna bizitza den  
eta baldarkeria heriotza,  
non bizkortasuna eta indarra, sena eta intuizioa  
diren prestakuntza bakar;  
non ikusmenaren zorrotza eta entzumenaren sakona  
biziaren bermea diren;  
non hemen bezala, piztiak zelatan egoten diren,  
baina hemen ez bezala, eraso, aurrez aurre egin eta adorez  
borrokatzen diren;  
non jainko begiralerik ez dagoen  
eta historia bako gizakia naizen.

Hizkeriarik gabeko ingurukoa naiz ni,  
non adituen teoriak zentzu bakoak diren,  
non jende xehearen berba bakanen misterioa jakintza den,  
eta izaki ñimiñoenak ere, ehizaerraz eta hauskor izan arren,  
teoria politikoari barre egiten dion.

Iheserako aukeratuko nukeen lurraldekoa naiz ni,  
eta, era berean, iheserako aukerarik ematen ez duenekoa,  
non nora ezak zentzua eta xedea dituen  
eta inork ez duen bere existentziaz galdetzen,  
izan badelako, arnasa hartzen duelako, hotz delako, beste barik.

Atxilo naiz, ordea, espaloiz burdinezaturiko kaiolan.  
Nora ezerako lekurik banu, behinik behin!

## BILA

Batzuetan barruko desosegu batek  
zerbaiten bila ari naizela salatzen du  
oihuka,  
zehaztu gabeko zerbaiten ale baten bila.  
Orduan irten egiten naiz  
aurkitzeko gogoz, entzuteko prest  
bestelako azalak nire barrukoa hobeto bilduko duelakoan,  
zehaztu gabeko urregorritzko alea nire azaletik kanpo bailegon.

Jende artean bilatzen dut,  
begietarako so zuzena ukatzen didan berbaroan, ahotsetan,  
ahoetan,  
berbetan,  
inguruko marmarraren esangurarik eza isiltasunezko zama  
bilakatu arte;  
arimak xede dituen urrutiko mugak espetxe trinko  
bilakatzen dituzte aldameneko gizakien ahots gorrek;  
berba egin ezinik lotzen naiz, ezpain josirik,  
barrenetik datorkidan oihua hagin hertsien harresian leherturik,  
begiak ohikeriaren argi motelak lausoturik,  
biriketarik tiraka daroan harlauzak arnasa estuturik,  
kalearen erdian oinezkoei begira,  
begiak limurtu egiten zaizkit  
gizakiak kontsolatzera etorri diren maskotengana.



Hutsune bihurtzen da inguruan dudan guztia  
gaztelu inguruko fosa-zuloa lez,  
handiko aldean dabilta ingurukoak,  
zubi altxagarria zabaltzen dut lantzean behin,  
halakoren bat hurbildu dakidan.

Baina esku hutsik itzultzen naiz beti,  
berba ustelen artean,  
esku hutsten zama astuna eraman ezinik.

## BERBA

Gizakiaren erraietan sortu zen  
berba  
garbi, landarea ernatu behar duen haziaren antzera,  
erraietan erneriko bulkada eta sentimendu ororen  
adierazpide,  
maitasun eta samurtasunaren adierazle,  
amorru eta gorroto guztien isla.

Umeak laztantzeko eta maitaleen larruaz gozatzeko erabili  
zuen gizakiak berba  
oihu bihurtua etsaiak akabatzeke,  
eta xuxurla bilakatua bere burua babesteko erabili zuen,  
eta garbia zen berba.  
Gero, erraietatik erauzi eta burmuinera ekarri zuen,  
bertan harilkatu zen huntz-orri igokariaren gisara;  
eta gezurrerako erabili zuen gizakiak, nahasmenerako.  
Burmuinetik ahora ekarri zuen,  
eta okada batean kanpora jaurti,  
kaleetan gora eta behera ibili dadin,  
ahotik ahora,  
listurik listu,  
prostituzio merkearen merkatuan, eskurik esku;  
ohartzeko berbarik preziatuena ahoratu gabea dela.

Harrezkero, marmarrean dabil gizakia, hara eta hona,  
berba eta berba,  
gehiegizko lausenguak eta irainaren eldarnioak  
eskuak gogortuta,  
atzamar leituez  
ferekaren mintzaira ahaztuta,  
zentzurik gabeko berriketa hutsean  
gainontzeko izaki txundituen begiradapean.

## NIRE BIZITZAREN LIBURUA

Adreilu hormatuez eraikitako eskola,  
korridore luze leituak,  
ikasgela izoztuetan metalezko kanpanillaren jela-soinuak  
kristalezko uhin zorrotzetan hedatuz doan isiltasuna  
ezarri du.

Abitudun irakasle hotzek  
rictus zurrunarekin porlanezko heziketaz zipriztindu gaituzte  
gizaki enkortsetatuak sortzeko,  
gizartearen ildo meharretan,  
atzera-aurrerako osteretan ahitu gaitezen.

Nire idazkera traketsa ez da letra biribilduez  
buztan zuzen-paraleloez  
papera harmoniaz betetzen duten horietakoa.

Nire idazkera traketsa  
hitz multzo okertua, desorekatua,  
lokarritu nahi izan dute  
berba politdun kaligrafia ariketa zurrunekin  
eta esku-bularra mindu didaten zigor fisikoekin.  
Irakasle hormatuek  
ez dute nire hizki zoroen desoreka armokikoa zanpatuko  
kaligrafia ariketen aurreiritzien zamaz,  
perfekzioaren bortizkeriarekin,  
monotoniaren idazkera gogaikarrira moldatu nadin.

Nire bidea  
ez da zelaian marraztutako lerro arteza  
zanpatze kaligrafikoa saihesteko  
hainbat gorabehera eta atzera-aurrera,  
negar-anpuluren bat eta amorru isilaraziaren  
hainbat birao egin arren,  
neure idazkera malguaz,  
neure hizki zoroez,  
idatziko dut egokitu zaidan bizitzaren liburua.

## UME HURA

Galburuak ditut oroit,  
arnastu egin nahi nituzke atzera gari lurrinak,  
haiexek berak une berberarekin batera  
begiak berriro bete zelaietako urregorriarekin,  
lur lehor hura zapaldu,  
argizko ibai hartan murgildu eta igeri egin,  
loinen sabel zilarreztatuen artean,  
arrantzan saiatu behin eta berriz, ezer harrapatu gabe,  
eta berriro saiatu umearen ekinarekin.

Ama baten deia itxaron nahi nuke  
etxerako orduan,  
eta eguneroko biaoa gorrotatu  
eta artega ikusi arratsaldearen joana arratsera arte...

...eta sekula ez galdu erraietan lo zorroan dudan  
orduko ume beldurti hura,  
gero eta urrunago, gero eta txikiago,  
gero eta eskuragaitzago ikusten dudan hura.